Irailean jaso ziren Hezkuntza Sailak emandako datuak. 2004ko urriaren 8an ordura arte jasotako datuen kopia bidali zen Batzorde Iraunkorrera, hurrengo bileran zirriborroa lantzeko helburuarekin.

2004ko azaroaren 3an bildu zen Batzorde Iraunkorra datu guztiak aztertzeko. Azaroaren 8an bidali zitzaien osoko bilkurako kideei lehenengo zirriborroa eta abenduaren 2ra arteko epea eman zitzaien zuzenketak egiteko.

Abenduaren 9an elkartu zen Batzorde Iraunkorra jasotako 102 zuzenketak aztertzeko.

Abenduaren 10ean bigarren zirriborroa eta zirriborroak bidali ziren osoko bilkurara eta abenduaren 21erako deitu zen osoko bilkura. Bilkura horretan onartu zen txostena: 70 zuzenketa jaso ziren, 18 baztertu eta 14 kendu. Bozketan aldeko 17 boto lortu ziren, kontrako 1 eta 4 abstentzio. Boto partikularra aurkeztu zuen STEE-EILAS sindikatuak.

Memoriari dagokionez, azaroaren 3an egin zen lehen zirriborroa eta ez zen zuzenketarik jaso. 2004ko abenduaren 21ean onartu zen aho batez.

2.5 atalean adierazi dira prozesua eta argitalpenen kostua.

2. helburua. Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta hezkuntza-erkidegoaren arteko parte-hartzea eta komunikazioa sustatzea.

2.1. jarduera. Garrantzitsua da tokiko komunikabideetan eta hezkuntza-esparruan espezializatutako prentsan aldiro agertzea.

Nafarroako Eskola Kontseilu gisa 22 aldiz agertu gara prentsa idatzian 4 aldiz tokiko irratian eta beste 4 aldiz telebistan. 30 ekintza, jardunaldi, bilera eta abarretan parte hartu da hezkuntza-erakunde bezala. Ondoren adierazi dira agerpen garrantzitsuenak:

Komunikabideetako agerpenak

DATA	ALBISTEAREN IZENBURUA
Diario de Navarra:	
14-11-04	"Marcotegui destaca el avance del euskera frente a los que critican el trato que recibe". Dice que es "un hecho" su importante desarrollo en Navarra.
16-01-05	"Fracaso Escolar, fracaso social". Javier Marcotegui.
9-02-05	"Directores de institutos piden más recursos económicos para los centros públicos". Quieren que su asociación esté en el Consejo Escolar.
22-02-05	"El presidente del Consejo Escolar de Navarra pide que la religión sea evaluable".
7-04-05	"Marcotegui cree que la ley de Educación es un retroceso en la cultura del esfuerzo. El presidente del Consejo Escolar habla de experimentos"
21-04-05	Los grupos parlamentarios expresan sus diferencias sobre la religión en la escuela. Marcotegui, presidente del Consejo Escolar, se reafirma en que sea "evaluable".
3-05-05	El Gobierno renueva siete cargos del Consejo Escolar.
Diario de Noticias:	
21-10-04	"Pacto Social y Acuerdo Político". Tribuna Abierta. Javier Marcotegui.
10-11-04	"Los alumnos que estudian en euskera tienen menos fracaso escolar que la media". Según informe que elabora el Consejo Escolar de Navarra.
22-12-04	"El Consejo Escolar pide que el curso en Secundaria dure diez días más que ahora". El órgano consultivo asumió una enmienda de Herrikoa en este sentido.
7-04-05	El presidente del Consejo Escolar de Navarra, Javier Marcotegui, critica la futura ley socialista.
Prentsa nazionala:	
25-10-04	Diario ABC "Pacto Social y Acuerdo Político". Javier Marcotegui.
7-10-04	El País "Pacto Social y Acuerdo Político". Javier Marcotegui.
11-01-05	Diario la Razón "Fracaso Escolar, fracaso social". Javier Marcotegui.
17-01-05	ABC "Fracaso Escolar, fracaso social". Javier Marcotegui.
6-04-05	Europa Press Entrevista a Javier Marcotegui. Tema: LOE.
Hezkuntzako aldizkari espezializatuak:	
4-10-04	Revista Aula "La calidad de le educación". Presidente del Consejo Escolar.
4-10-04	C.de Pedagogía "La calidad de le educación". Presidente del Consejo Escolar.
3-10-04	Magisterio "Pacto Social y Acuerdo Político". Javier Marcotegui.
4-10-04	Escuela Española "Pacto Social y Acuerdo Político". Javier Marcotegui.
15-02-05	Revista Aula "Fracaso Escolar, fracaso social". Javier Marcotegui.
9-03-05	GUIX Revista "Fracaso Escolar, fracaso social". Javier Marcotegui.
Radio Nacional:	
28-12-04	"Informe PISA. Intervención del Presidente del Consejo Escolar.
Cadema COPE:	
10-09-04	"Libros de texto".
Onda Cero	
7-09-04	Entrevista a Javier Marcotegui. Tema: "Comienzo del curso escolar".
Radio Navarra:	
22-02-05	Presidente del Consejo Escolar habla sobre el tema de la Religión.
Telebista:	
- Canal 6 TV.	
9-09-04	"Curso Escolar". Presidente.
- Canal 4 TV	
23-11-04	Participación de Javier Marcotegui. Tema religión en la escuela.
8-03-05	Presidente del Consejo Escolar habla sobre el tema de la Religión.
- Popular TV.	
1-04-05	"Anteproyecto de la LOE".

DATA **ALBISTEAREN IZENBURUA**

Internet:

Nafarroako Eskola Kontseiluak web-orri bat du Sarean, honako helbide honetan:

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra.

Honakoa web-orriaren edukia:

Nafarroako Eskola Kontseiluaren buletina: IDEA / IDEIA

Txostenak edo irizpenak.

- Emandako irizpenak.
- Tramitatzen ari diren irizpenak.
- onartutako azken 3 irizpenak.

Liburutegia

- Nafarroako Eskola Kontseiluaren agerkariak.
- Azkenengo eskuratutakoak.
- Eskola Kontseiluen agerkariak.

Jarduerak.

- Batzorde iraunkorraren laburpenak.
- Osoko Bilkuraren laburpenak.
- Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin biltzeko jardunaldia.
- Eskola Kontseilu Autonomikoen eta Estatukoen topaketak. Nafarroako Eskola Kontseiluak aurkeztutako txostenak.

Legeria eta arautegia.

- 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa eta Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duena.
- 356/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamendurako araudia.
- Aldi baterako batzordeak sortzea.

Legegintza-iruzkinak.

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostena.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osaera.

Batzorde Iraunkorraren osaera eta txostenak.

Interneteko orri honetara egiten diren bisiten kopurua eta jatorria zehaztu da ondoren. 2001eko otsailaren 1etik 2005eko abuztuaren 31ra 14.901 bisita egin dira guztira, hau da, 2004-2005 ikasturtean 3.787 bisita izan zituen web-orriak. Ondoren adierazi da bisiten banaketa:

Espainia	13.339	%89,5
Amerikako Estatu Batuak	127	%0,9
Argentina	114	%0,8
Mexiko	107	%0,7
Perú	84	%0,6
Txile	80	%0,5
Frantzia	53	%0,4
Erresuma Batua	46	%0,3
Alemania	45	%0,3
Suedia	39	%0,3
Ezezaguna	552	%3,7
Gainerakoa	315	%2,1
Guztira	**14.901**	**%100,00**

2004-2005 ikasturtean ondoren adierazitako bilera, jardunaldi eta ekintzetan parte hartu da, besteak beste.

Nafarroan antolatutako ekintza, bilera eta jardunaldietan parte-hartzea:

– Azaroak 12: Lehendakariak txosten bat aurkeztu du "La evolución del vascuence en Navarra" izenekoa, Euskara Kultur Elkargoak antolatutako "Euskara, Nafarroa eta Etorkizuna" jardunaldian.

– Azaroak 19: Lehendakaria "Los derechos de la infancia" lanaren aurkezpenean egon da, Nafarroako Herriaren Defendatzaileak Nafarroako Unibertsitatearekin batera egindako argitalpena.

– Azaroak 22: Lehendakaria "Pablo Sarasate" Musikako Goi-mailako Kontserbatorioan egon da Santa Zezilia egunean egin den kontzertuan.

– Azaroak 27: Lehendakaria Iruñako Irabia ikastetxearen festan parte hartu du.

– Urtarrilak 26: Lehendakaria eta Kontseiluko bi kide Hezkuntza Sailburuarekin elkartu dira Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoera ekonomikoari buruz hitz egiteko.

– Urtarrilak 31: Lehendakariak "Salesianos" ikastetxearen festan parte hartu du.

– Otsailak 1: Lehendakaria CONCAPA-Nafarroa Federazioaren egoitza berriaren inaugurazioan egon da

– Otsailak 15: Lehendakariak Jamil Fundazioaren lehendakariari arrera egin dio.

– Otsailak 15: Lehendakaria Nafarroako Teknologia Irakasleen Elkartearen (APTENA) elkartu da eta "Aportaciones a la conyuntura de la educación. Febrero de 2005" agiria aurkeztu dute.

– Martxoak 23: Lehendakariak Koordinazio Batzordeak antolatutako bileran parte hartu du ("Año Europeo de la Educación a través del Deporte").

– Apirilak 13: Lehendakaria Nafarroako Kutxako Goñi jaunarekin elkartu da Eskola Kontseiluaren IDEA aldizkariaren argitalpenari buruz hitz egiteko.

– Apirilak 15: Lehendakaria Hezkuntza Kontseiluarekin elkartu da. Gaia: LOE.

– Apirilak 20: Lehendakariak "El Quijote"-ren irakurketan parte hartu du. Nafarroako Hizkuntz Eskolan egin da.

– Apirilak 20: Lehendakaria Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean hitz egin du LOE eta erlijioaren irakasgaiari buruz.

– Apirilak 22: Lehendakariak Unibertsitatearen Egunean parte hartu du Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

– Apirilak 23: Lehendakariak "El Quijote"-ren irakurketan parte hartu du "Plaza de la Cruz" institutuan.

– Apirilak 27: Lehendakariak "LOE, la nueva reforma educativa en Navarra" hitzaldia eskaini du CONCAPA-Nafarroak antolatutako hitzaldien zikloaren barruan.

– Maiatzak 3: Lehendakariak "La autonomía de los centros educativos" jardunaldietan parte hartu du, Nafarroako Institutuen Zuzendarien Elkarteak (ADI) antolatuta.

– Maiatzak 5: Lehendakariak Hezkuntza Sailburuak Ikastetxeetako Zuzendariekin batera antolatutako lan-bileran parte hartu du. Gaia: LOE.

– Ekainak 7: Lehendakaria Nafarroako irakaskuntza publikoko sindikatuekin bildu da: CCOO, UGT, CSI-CSIF, STEE-EILAS, AFAPNA, ANPE eta ELA. Nafarroako ikastetxe publikoen egoerari eta beharrei buruzko txosten bat aurkeztu dute aipatutako sindikatuek.

– Ekainak 14: Lehendakariak Nafarroako Unibertsitate Publikoan Brunet Sariaren banaketan parte hartu du.

– Ekainak 21: Lehendakaria Nafarroako Musika Irakasleen Elkartearekin bildu da.

– Ekainak 21: Lehendakariak FETE-UGET sindikatuaren VII. Biltzarrean parte hartu du.

Nafarroatik kanpora antolatutako ekintza, bilera eta jardunaldietan parte-hartzea:

– Irailak 23 eta 24: Lehendakaria Toledora joan da Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen lehendakariekin bildu eta XVI. Topaguneak prestatzeko.

– Irailak 27: Lehendakaria Madrilera joan da Estatutako Eskola Kontseiluaren egoitzan Eskola Kontseiluen Lehendakarien eta Hezkuntza Ministroaren arteko bileran parte hartzeko. Bertan "Debate…" agiria aurkeztu zen.

– 2004ko urriak 13: Lehendakaria Madrilera joan da Estatutako Eskola Kontseiluaren bilera batean partea hatzeko.

– 2004ko azaroak 16 eta 17: Lehendakaria Mallorkara joan da Balearretako Eskola Kontseiluaren lehendakariak deitutako Eskola Kontseiluen Lehendakarien bileran parte hartzeko.

– 2005ko Urtarrilak 20: Lehendakariak Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen Lehendakarien bileran parte hartu du Teruelen. Bilera hori otsailean egingo den Eskola Kontseiluen bilera prestatzeko egin da.

– Otsailak 2, 3 eta 4: Lehendakaria eta Kontseiluko hiru kide Zaragozara joan dira Eskola Kontseilu Autonomikoek eta Estatukoek MECen agirira egin ditzaketen ekarpenei buruzko Jardunaldietan parte hartzera. Eztabaidarako proposamena, "Una educación de calidad para todos y entre todos", Aragoiko Eskola Kontseiluak deitua.

– Otsailak 28: Lehendakariak Donostian "Plan Vasco de la F.P. 2004-07" agiriaren aurkezpenean parte hartu du Euskadiko Eskola Kontseiluak gonbidatuta.

2.2. jarduera. IDEA/IDEIA hiruhileko buletina argitaratzen jarraitzea (18.,19.,20. zk.).

Aurreikusitako zenbakiak argitaratu dira honako eduki honekin:

18. Zenbakia:
Monografrikoa: Ikastetxeetako hobekuntza planak / Ebaluazioa.

Editoriala:
– *Kalitatea hezkuntzan.* Javier Marcotegui Ros, Eskola Kontseiluaren lehendakaria.

Foroa:
– *Ebaluazioa eta kalitatea ikastetxeetan* Mª Antonia Casanova, Hezkuntza Sustapeneko Zuzendari Nagusia (Hezkuntza Saila. Madril).
– *Nafarroako hezkuntzaren adierazle-sistema 2003.* Antonio Martiocorena Valencia, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren zuzendaria.
– *Nafarroako hezkuntzaren kalitate-sistemak sustatzea.* Pedro González Felipe, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berrikuntzarako Zerbitzuaren zuzendaria.
– *Kalitatea, gizartearen kohesioa lortzeko baliabide: sozializazioa.* Isabel Valdelomar, eskola-orientatzailea.
– *Kalitatea, ekitate-printzipiotik abiatuta.* Juan Vicente Ansa Erice, Pedagogia terapeutikoko irakaslea.
– *Kalitatea... Zer kalitate?.* Fernando Carbajo, Filosofiako katedraduna eta irakaslea.
– *Aita-amentzat, zer da kalitatea?* HERRIKOA federazioa.
– *Hezkuntzaren kalitateari buruzko hausnarketak.* CONCAPA Nafarroa.
– *Hauxe da behar dugun kalitatea.* Kristina Andrés Gil, Sortzen Ikasbatuaz-eko koordinatzailea.
– *Hezkuntza sistemaren zerbitzura dauden kalitate kudeaketa-ereduak.* Alberto Arriazu Agramonte, Iruñeko "Navarro Villoslada" BHIren zuzendaria.
– *Eskola hobetu egin daiteke. Gerardo Ollo Escudero, Iruñeko "Iturrama"* BHIren zuzendaria, Belén Apezetxea eta Joseba Ozkoidi (Kalitatearen arduradunak).

Ikasgela gaur
– *Eskola Kontseiluei buruzko VI. jardunaldia.*
– *Ziurtatutako zenbait ikastetxe berri.* José Mª Irazoqui, Berako "Toki Ona" BHIren zuzendaria.

Pertsonak: – *Nafarroako hainbat ikasle saritu eta nabarmendu dira.*

Prentsako albisteak.

Bibliografia.

Legediaren aipamena.

– 152/2004 Foru Aginduak DBHko aukerako irakasgaien curriculuma onartzen du, eta DBHko laugarren mailako aukerako gaiak nola irakatsi arautzen du.

– 151/2004 Foru Aginduak Batxilergoko egitura, antolaketa, ordutegia eta aukerako irakasgaien curriculuma garatzen ditu.

19. Zenbakia.
Monografikoa: Irakurmena eta idazmena.

Editoriala: – *Irakurmena eta idazmena: oinarrizko tresnak.* Pedro Jimeno Capilla, Gaztelania eta Literaturako katedraduna.

Foroa:

– *Irakurmena eta idazmena Haur- eta Lehen-Hezkuntzan.* Lekarozko IGZko talde pedagogikoa.

– *Idazmena Bigarren Hezkuntzan: zeregin ugari.* Pedro Jimeno Capilla, Gaztelania eta Literaturako katedraduna.

– *Literatura-didaktikari buruzko eskutitza Monikari.* Tomás Yerro Villanueva, Gaztelania eta Literaturako katedraduna.

– *Irudiak irakurri, hitzak marraztu.* Daniel Aldaya, idazlea.

– *Lehen-Hezkuntzan irakurmen-gaitasuna lantzeko urratsak.* Angel Sanz Moreno, Hezkuntza-ikuskaria eta ikastetxeen ebaluazio-arloaren koordinatzailea.

– *Ulermenezko irakurketa eta Atlante proiektua.* Pedro González Felipe, Hezkuntza Plangintzarako Zerbitzuaren zuzendaria.

– *Irakurmena eta idazmena kazetarien lanean:*

  – *Hitzarekin lan egitea.* Sonsoles Echavarren, Diario de Navarra-ko idazlaria.

  – *Kazetaritza: Literaturaren "janari azkarra", historia letra xehez.* Jesús Iribarren Corera, Diario de Noticias-eko idazlaria.

Pertsonak: – *Hitzaren balioa sukaldaritza munduan.* Atxen Jiménez, Túbal jatetxea.

Prentsako albisteak

Bibliografia.

Legediaren aipamena.

– 253/2004 Foru Aginduak Nafarroako Foru Erkidegoko ikasle atzerritarren, eta baztertuen dauden gutxiengo soziokulturaletako ikasleen hezkuntza-arreta arautzen du.

– 583/2004 Ebazpena: titulu teknikoa duten ikasleak goi mailako heziketa zikloetan sartzeko probak prestatzeko ikastaroa.

20. zenbakia.
Monografikoa: Matematika.

Editoriala: – *Matematika ezaguerarako oinarrizko tresna gisa.* Mª Dolores Eraso Erro, Iruñeko "Navarro Villoslada" BHIko matematika katedraduna.

Pertsonaiak: – *Matematikak, komunikatzeko beste modu bat.* José Antonio Marina, filosofoa eta idazlea.

– *Matematika irakasteko pribilegioa.* Rafael Pérez Gómez, Katedraduna. Matematika Aplikatuaren Saila. Granadako Unibertsitatea.

Foroa: – *PISA eta Lehen Hezkuntzako ikasleen prestakuntza matematikoa.* Mª Victoria García Armendáriz, Eskola-orientatzailea.

– *Hausnarketa bat datozen urteetako heziketa matematikoari buruz.* Javier Bergasa Liberal eta Manuel Sada Allo, Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

– *Heziketa matematikoa LHko ikasketa finalistetan.* José Mª Irazoqui, Berako "Toki Ona" BHIren zuzendaria.

– *Matematika: garrantzia eta PISA ebaluazioa.* Jesús González Goñi, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Ikuskaria.

– *Matematika hobetzea Lehen Hezkuntzan. Atlante proiektua.* Mª Rosario Herrera González, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Ikuskaria.

Ikasgela gaur: – *Matematika ere kultura da.* Pedro Otaduy.

– *Etxe argiztatua.* Javier Fresán Leal, Matematika-Olinpiadaren irabazlea, Batxilergoko 2. mailako ikaslea. Barañain BHI.

Prentsako albisteak.

Bibliografia.

Legediaren aipamena.

– 43/2005 Foru Dekretua: Hezkuntza Sailaren egitura.

2.3. jarduera. Sektore guztien parte-hartzea sustatzea, batez ere familiena, Ikastetxeko Eskola Kontseiluak urteko berritzeko. Xede horrekin sentsibilizazio-kanpainak egingo dira eta bozketen data adostu beharko da.

2.4. jarduera. 2005eko udaberrian Ikastetxeen Eskola Kontseiluen Urteko VII. Jardunaldia egitea.

Arrazoi ekonomikoek eraginda, Jardunaldia bertan behera geratu zen.

2.5. jarduera. Nafarroako Eskola Kontseiluak landutako agiriak eta txostenak argitaratzea eta zabaltzea.

– Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostena, 1990-2000.

Bi liburukitan argitaratu zen txostena, gaztelaniaz eta euskaraz hain zuzen. 200eko martxoaren 18an banatu zen Hezkuntza Administraziora eta Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuetako Eskola Kontseiluetara, Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoetara, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordera eta Foru Erkidegoko komunikabideetara eta prentsa espezializatura.

Txostenaren 500 ale argitaratu ziren gaztelaniaz (314 orri) eta 150 euskaraz (302 orri). Maketazioaren kostua 1.144,72 eurokoa izan zen. Inprimatzearena 5.526,07 eurokoa. Euskarara egindako itzulpenaren kostua 4.715,15 eurokoa izan zen. Guztira 11.385,94 euro.

– Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria, 2003-2004 ikasturtea.

Bi liburukitan argitaratu ziren Txostena eta Memoria, gaztelaniaz eta euskaraz. Ekainaren erdia aldera banatu ziren Hezkuntza Administraziora eta Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuetako Eskola Kontseiluetara, Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoetara, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordera eta Foru Erkidegoko komunikabideetara eta prentsa espezializatura.

Txostenaren 500 ale argitaratu ziren gaztelaniaz (460 orri) eta 150 euskaraz (460 orri). Maketazioaren kostua 1.080 eurokoa izan zen liburu bakoitzagatik eta 120 azalaren diseinuagatik. Inprimatzearena 7.180 eurokoa izan zen eta euskarazko itzulpena 6.156,35 eurokoa. Guztira 14.536,35 euro.

Memoriaren 500 ale argitaratu ziren gaztelaniaz (187 orri) eta 150 euskaraz (180 orri). Maketazioaren kostua 570,96 eurokoa izan zen eta 120 azalaren diseinuagatik. Inprimatzearena a 3.795,90 eurokoa izan zen eta euskarazko itzulpena 2.753,30. Guztira 7.240,16 euro.

- Nafarroako Eskola Kontseiluak Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin egindako VI. Jardunaldien txostenak: "Planes de mejora en los centros / evaluación".

  Argitalpena euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu zen, ale bakar batean, eta guztira 165 orri ditu.

  400 ale egin ziren eta 2005eko martxoaren 18an banatu.

  Maketazioaren kostua 432,51 eurokoa izan zen, inprimatzearena 1.880,57 eurokoa eta euskarazko itzulpenarena 1.205,59 eurokoa. Guztira 3.518,67 euro.

– IDEA/IDEIA aldizkaria, 18., 19. eta 20. zenbakiak.

  Zenbaki bakoitzaren 800 alena banatu ziren Hezkuntza Administraziora eta Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuetako Eskola Kontseiluetara, Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoetara, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordera eta Foru Erkidegoko komunikabideetara eta prentsa espezializatura.

  2004ko azaroaren 22an banatu zen 18. zk. eta honakoa kostua: maketazioa 954,47 euro, 1.288,06 euro inprimatzea eta 707,30 euro euskarazko itzulpena. Guztira: 2.949,83 euro.

  2005eko martxoaren 7an banatu zen 19. zk. eta honakoa kostua: 655,41 euro maketazioa, 999,92 euro inprimatzea eta 606,65 euro euskarazko itzulpena. Guztira: 2.259,98 euro.

  2005eko maiatzaren 25ean banatu zen 20. zk. eta honakoa kostua: 400,00 euro maketazioa, 790,08 euro inprimatzea eta 564,80 euro euskarazko itzulpena. Guztira: 1.754,88 euro.

3. helburua – 2004ko abenduaren 31 baino lehen Nafarroako Hezkuntza Sistemari (unibertsitateaz kanpokoa) buruzko txosten bat lantzea, 2003-2004 ikasturtea eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria, 2003-2004 ikasturtea.

Helburu honek garatzen du Kontseiluaren funtsezko zeregina.

3.1. jarduera. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria 2004ko abenduaren 31 baino lehen lantzea eta onartzea, 2003/2004 ikasturtea.

Helburu hau lortu zen. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Sailak puntualtasunez bidali zituen eskatutako datuak. Ikus Memoria honetako 5. atala.

4. helburua – Estatuko Eskola Kontseiluarekin eta gainerako Eskola Kontseilu Autonomikoekin koordinatzea, parte hartzea eta ezagutzea.

4.1. jarduera. Eskola Kontseilu Autonomikoen eta Estatukoen Topaguneetan parte hartzea. Zaragozan antolatu dira eta gaia *"El Pacto Social por la Educación"* da.

MECDek *"Una educación de calidad para todos y entre todos"* agiria aurkeztu eta gero, Eskola Kontseilu Autonomikoek eta Estatukoek ministroak aurkeztutako agiriaren gainean egokitzat jotzen zituzten iradokizunak eta ekarpenak bidaltzeko erabakia hartu zuten. Batzorde Iraunkorrak MECDera sektore desberdinetatik Kontseilura iritsitako ekarpenak bidaltzeko erabakia hartu zuen. Lana errazteko, Lehendakaritzak lanerako plan bat landu zuen eta honako agiria hauek bidali zizkien kide guztiei 2004ko urriaren 21ean:

- Oinarrizko agiriak:
  - "Una educación de calidad para todos y entre todos". Eztabaidatzeko proposamena. MEC.
  - Hezkuntzaren aldeko deklarazio bateratua. Encuentro Fundazioa.
- Lanerako agiriak:
  - "Una educación de calidad de calidad para todos y entre todos" agiriarekin lan egiteko gidoia.
  - Iritziak jasotzeko Excel-eko orria.
  - Hezkuntzari buruzko akordio politikoa lortzeko beharra.

Honako erakunde hauek erantzun zuten: ANEG-FERE, CECE, Nafarroako Unibertsitatea, CONCAPA, CSI-CSIF, FETE-UGT, HERRIKOA, SEPNA-FSIE eta STEE-EILAS eta azaroaren 25ean proposamen guztiak Aragoiko Eskola Kontseilura bidali ziren. Abenduaren 22an Aragoiko Eskola Kontseiluak, Eskola Kontseilu Autonomikoek eta Estatukoek bidalitako iradokizun guztien laburpena egin ondoren, laburpen-agiria landu zuen. 2005eko urtarrilaren 11n Batzorde Iraunkorrak bilera bat egin zuen laburpen-agiriak jasotako zuzenketak aztertzeko. Urtarrilaren 13an Aragoiko Eskola Kontseilura bidali ziren Nafarroako Eskola Kontseiluak laburpen-agiriari egindako zuzenketak. Urtarrilaren 20an Lehendakariak Teruelen egindako Lehendakarien bileran parte hartu zuen, laburpen-agiriari aurkeztutako zuzenketak aztertzeko. Urtarrilaren 27an Batzorde Iraunkorrak laburpen-agiri berri bat aztertu zuen, oraingoan zuzenketak barne hartuta.

Otsailaren 2, 3 eta 4an bildu ziren Eskola Kontseiluak. Nafarroako Eskola Kontseiluaren lau kide bertaratu ziren. Kontseiluaren web-orrian irakur daiteke lortutako ondorioen agiria: www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra.

4.2. jarduera. Gainerako Eskola Kontseilu Autonomikoekin eta Estatukoekin komunikatzea eta informazioa trukatzea eta beste Eskola

Kontseilu batzuk egiten dituzten zenbait jardueretan parte hartzea eta laguntzea.

Aurreko ataletan ikusi duzuenez, gainerako Eskola Kontseilu Autonomikoekin eta Estatukoekin ahalik eta harreman onena edukitzeko lan egin da eta, horretarako, argitalpen propioak bidaltzeaz eta jasotzeaz gain, Jardunaldi, Topagune eta Lan Saioetan parte hartu da. Urteko Lan Plan honen 2.1. helburuan irakur daiteke adierazitako guztia zehazkiago.

4.3. jarduera. Hiru ikastetxe garrantzitsuenen Eskola Kontseiluetako Lehendakariekin harreman pertsonalak edukitzea.

5. helburua – Hainbat.

5.1. jarduera. Kontseiluko kideak berritzeko beharrezkoak diren ekintzak hartzea, betiere 12/1997 Foru Legearen, Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duena, 6. artikuluan aurreikusitako egoerarik gertatzen bada.

2005eko maiatzaren 2an Nafarroako Gobernuak hartutako akordioaren bidez egin zen Nafarroako Eskola Kontseiluaren mahaikideen berritze partziala:

– Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkariak:
  José Luis Sesma Sánchez jn., CC.OO sindikatuaren ordezkaria.
  Fernando Barainca Lagos jn., SEPNA-FSIE sindikatuaren ordezkaria.
– Nafarroako toki-erakundeetako ordezkaria:
  Luis María Sada Enériz jn.
– Pertsona aditua:
  Francisco Altarejos Masota jn.
– Unibertsitateen ordezkaria:
  Julián José Garrido Segovia jn. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkaria.
– Nafarroako Parlamentuko ordezkariak.
  Esteban Garijo Pérez jn.
  Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.

5.2. jarduera. Kontseiluko langileen hornidura zabaltzea, A mailako irakasle batekin.

3

Osoko Bilkuraren Jarduerak

3.1. Osoko Bilkuretan parte hartzea



Osoko Bilkuraren kide-kop.	Izendatutako kide-kop.	Bertaratutakoen batez bestekoa	Bertaratutakoen %
33	33	22	%68

3.2. 2004ko irailatik 2005eko abuztura egindako Osoko Bilkuren laburpena

3 Osoko Bilkura egin dira. Honakoak dira aztertu diren gaiak eta hartu diren akordioak:

2004ko urriaren 20a

Honakoa eguneko gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Nafarroako Foru Erkidegoan Informazioaren eta Telekomunikazioen Gizartea sustatzeko II. Jarduera Planari (2004-2006) buruzko informazioa, Planaren idazketaz arduratu diren pertsonak bertaratu direlarik.
3. Informazio orokorra.
4. Lanerako plana, 2004-2005 ikasturtea.
5. Nafarroako Eskola Kontseiluaren kideek jarraitzeko proposamena.
6. Nafarroako Eskola Kontseiluaren aurrekontua, 2005. urtea.
7. Galde-eskeak.

1. puntua: ekainaren 28ko akta onartu zen aho batez.

2. puntua: Nafarroako Foru Erkidegoan Informazioaren eta Telekomunikazioen Gizartea sustatzeko II. Jarduera Plana (2004-2006) idazteko ardura duten pertsonek Planaren edukia aurkeztu zuten. Kontseiluko kideen artean bakoitzak bere iritziak aurkezteko prozesu bat ireki zen eta Planaren edukiari buruz zuten iritzia adierazi zuten.

3. puntua: Lehendakariaren informazio orokorra:

- Nafarroako Eskola Kontseiluan HERRIKO Gurasoen Federazioak dituen ordezkarien aldaketei buruzkoa.
- Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenari buruz, 2003-2004 ikasturtekoa hain zuzen. Oinarrizko dokumentazioa lantzen ari da.
- 2004ko irailaren 27an Eskola Kontseilu Autonomikoek Hezkuntza Ministroarekin egindako bilerari buruz. Bilera hartan hezkuntza-sistemari buruzko proiektu berri baten dokumentazioa banatu zen eta Kontseiluko kide guztien eskura jarriko da aipatutako dokumentazioa, ondoren egindako Batzorde Iraunkorrean adostutakoaren arabera.
- Hezkuntza Sistemaren txostenari buruz (1999-2000), inprentan dagoena. Era berean, IDEA aldizkariaren 18. zenbakia "La calidad en la educación".
- Amaitzeko, egoitza berriaren egoerari buruzko iruzkin bat egin zen. Ezinezkoa izan da lanak esleitzea Hezkuntza Sailak aurrekontu-mailako arazoak dituelako, baina ahalik eta azkarren egingo dela aurreikusi da.

4. puntua: Lehendakariak adierazi duenez, Lanerako Plana (2004-2005 ikasturtea) iazkoaren antzekoa da, Hezkuntza eta Inmigrazioari buruzko atalean izan ezik (ezinezkoa izan zen aurrekoan egitea). Aipatutako Plana onartu zuten bertaratutako guztiek.

5. puntua: 2004-2005 ikasturterako Aldi Baterako Lanerako Batzordeak osatzea onartu zuten bertaratu ziren guztiek.

6. puntua: Lehendakariak Nafarroako Eskola Kontseiluaren Aurrekontu Proiektua 82005) aurkeztu zuen. Bertaratu ziren guztiek onartu zuten.

Galde-eskeak:

- José Luis Larrea Cenoz jaunak eguneko gai-zerrendan puntu berri bat sartzeko eskatu zuen, hartara, 2004ko irailaren 27an Ministroak aurkeztutako agiria osoko bilkuran eztabaidatzeko komeni den eztabaidatzeko. Ondoren, lortzen diren akordioak Ministeriora bidaliko dira, Eskola Kontseilua baita horretarako organo egokiena.

  Lehendakariak adierazi zuenez, hobe da gai hori Batzorde Iraunkorrean aztertzea eta, ondorioz, ez da komeni orain eztabaidatzea.

  José Luis Larrea Cenoz jaunak Osoko Bilkuraren iritzia eskatu zuen.

  Idazkari jaunak 356/1998 Foru Dekretuaren, Nafarroako Eskola Kontseiluaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiari buruzkoa, 20.3 artikulua irakurri zuen. Bertan arautzen da eguneko gai-zerrendan gaiak sartzeko prozedura.

  José Luis Larrea Cenoz jaunak proposamena atzera bota zuen.

– Francisco José Flores Pérez jaunak 184/2004 Foru Aginduari buruz galdetu zuen. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Lanbide Heziketari buruzkoa da, hain zuzen lan aktiboan dauden langileentzako prestakuntza-eskaintza arautzen du, eta Ikastetxe Publikoetan bakarrik ezartzen dela adierazten du. Gainera, mota horretako prestakuntza Ikastetxe Pribatuetan ere eskaini ahal izango den galdetu zuen.

2004ko abenduaren 21a

Honakoa eguneko gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. informazio orokorra.
3. Eztabaida eta, hala badagokio, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria onartzea (2003-2004 ikasturtea).
4. Galde-eskeak.

1. puntua: Aurreko bilerako akta onartu zen aho batez.

2. puntua: Honako gai hauek aurkeztu zituen lehendakariak:

– CCOO sindikatuaren ordezkari berriaren aurkezpena: José Luis Sesma Sánchez jn.
– Batzorde Iraunkorraren azken bileren kopurua eta data.
– Zaragozako jardunaldiak (Una educación para todos entre todos).
– Eskola Kontseiluaren kontuak.
– Eskola Kontseiluaren argitalpenak, besteak beste IDEA aldizkaria, 18. eta 19. zenbakiak.
– Ministerioarekin egindako Hitzarmenari buruzko txostena eskatzea, ("Literatur Ibilbideak").

3. puntua: Lehendakariak egin zuen proposamena, iazko urtean jarraitutako prozesua errepikatuz. Onartu egin zen. Honakoa bozketaren emaitza: aldeko 17 boto, boto 1 kontra eta 4 abstentzio. Ondorioz, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria onartu ziren (2003-2004 ikasturtea).

4. puntua:

– - Pedro Rascón Macías jaunak Mendillorri Bigarren Hezkuntzako institutuaren etorkizunari buruzko galdetu zuen eta akta honetan barne hartu den idatzi bat aurkeztu eta Hezkuntza Sailaren erantzuna eskatu zuen.
– Lehendakari jaunak berriro adierazi zuen Hezkuntza Sailak nahitaez erantzun behar diola egin zaion galderari.

– Miguel Laspalas Pérez jaunak Eskola Kontseiluan orain arte betetako funtzioak bertan behera uzten zituela jakinarazi zuen ofizialki Batzorde Iraunkorraren osoko bilkuran.
– Lehendakariak agindu zuenez Nafarroako Eskola Kontseiluaren aktan Miguel Laspalas Pérez jaunak egindako lana eta dedikazioa azpimarratu eta eskertu behar ziren (batzordeko kide izan da).
– José Luis Larrea Cenoz jaunak eskatu zuen aktan adierazteko urteko txostenean "Iruzkinak" izeneko kapitulu bat gehitzea komeni dela.

2005eko martxoaren 2a

Honakoa eguneko gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Informazio orokorra.
3. Eztabaida eta, hala badagokio, 1/2005 ebazpena, "Literatur Ibilbideak", onartzea.
4. Eztabaida eta, hala badagokio, 2/2005 ebazpena, "Hezkuntza Ikuskaritzaren egitura eta antolamendua" onartzea.
5. 2004ko 2. seihileko kontuak.
6. Luis Campoy Zueco jaunaren, Hezkuntza Sailburua, parte-hartzea, Eskola Kontseiluarekin gaur egun Hezkuntzak bizi duen egoerari buruzko gogoeta egiteko.
7. Galde-eskeak

1. puntua: 2004ko abenduaren 21eko akta onartu zuten bertaratutakoek aho batez.

2. puntua:

– Lehendakariak ongi etorria egin zien kontseiluko bi kide berriei: José Miguel Garbayo jauna (CONCAPA Gurasoen Federazioaren ordezkari bezala) eta Francisco Altarejos jauna (pertsona ezagun eta aditu bezala).
– Egindako Batzorde Iraunkorren informazio eman zuen eta Zaragozako jardunaldiari buruz hitz egin zuen ("Una educación para todos y entre todos"). Halaber, Kontseiluaren egoitza berriaren egoera Hezkuntza Sailburuari jakinarazi zaiola gogoratu zuen, egoitzaren lanei ekin ahal izateko.

3. puntua: 1/2005 ebazpena onartu zen, MECD-Nafarroako Gobernuaren artean 2004-2005 ikasturtean "Literatur Ibilbideak" lurralde-lankidetzako programa garatzeko.

4. puntua: Eztabaida eta bozketa egin ondoren onartu zen 2/2005 ebazpena, "365/1999 Foru Dekretua, irailaren 13koa eta Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Ikus-

karitzaren Zerbitzuaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duena, garatzen duen Foru Aginduari" buruzkoa

5. puntua: 2004ko bigarren seihileko kontuak onartu ziren.

6. puntua: Hezkuntza Sailburuak hitz egin zuen eta Hezkuntza Sistemak gaur egun duen egoerari buruz hitz egin zuen: malgutasuna edo zorroztasuna, aurrekontumailako beharrak eta abar. Eskola Kontseiluko kideen artean eztabaida hasi zen Sailburuak aurkeztutako gaiaren inguruan eta, azkenean, Kontseiluari eskatu zitzaion beste bilera batean eztabaidatzeko aukera emateko. Lehendakariak baietz adierazi zuen, horrela erabaki zutelako bertaratutako guztiek.

7. puntua: Ez zen galde-eskerik egon.

4 Batzorde Iraunkorraren Jarduerak

4.1. Batzorde Iraunkorretan parte hartzea:



Osoko Bilkuraren kide-kop.	Izendatutako kide-kop.	Bertaratutakoen batez bestekoa	Bertaratutakoen %
9	9	8	%88,88

4.2. 2004ko irailetik 2005eko abuztura egindako Batzorde Iraunkorren laburpenak

8 bilera egin dira. Jarraian adierazi da aztertu diren gaien eta hartu diren akordioen edukia:

2004ko urriak

Honakoa bileraren gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Lehendakariaren informazio orokorra.
3. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren egoera, 2003-04 ikasturtea. Lan-taldeak eta egutegia.
4. Lanerako plana, 2004-05 ikasturtea.
5. IDEIA aldizkariaren 19. zenbakiaren edukia.
6. Aurrekontuaren aurrerapena.
7. Egoitza berrirako aurrekontua eskatzea.
8. 2005erako aurrekontua.
9. Aldi baterako Batzordeak.
10. Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen XVI. topaguneak. Informazioa eta lanerako egutegia.
11. Hurrengo osoko bilkuraren deialdia eta gai-zerrenda.
12. Galde-eskeak.

1. puntua: 2004ko ekainaren 28ko Batzorde Iraunkorraren akta onartu zen.

2. puntua: Lehendakariaren informazio orokorra:

– Urriaren 27an Hezkuntza Ministroarekin eta Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen lehendakariekin izandako bilerari buruzkoa.

– Eskola Kontseiluaren argitalpenei buruzkoa. José Luis Larrea jaunak eskatu zuen IDEIA aldizkarian argitaratzeko aurkezten ziren idatzietan aldaketarik egiten bada egileei jakinarazteko.

– Urriaren 6an Hezkuntza Sailburuarekin egindako bilerari buruz eta gutunari buruz. Gutunaren bidez Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiari eskatzen zitzaion Nafarroako Eskola Kontseiluaren Zuzendaritza Nagusiak egin zitzakeen txosten-eskaerak aurreikusteko.

– 2004ko urriaren 20an Informazioaren Gizarteari buruz Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran Informazioaren Gizartea sustatzeko aurkeztutako Plana. Lehendakariak Batzorde Iraunkorraren baimena eskatu zuen gonbidapen ofiziala eskatzeko eta dagokion informazioa eskuratzeko. Proposamena onartu zen.

3. puntua: Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenari (2003-2004) buruz, Lehendakariak normaltasunez lantzen ari zirela adierazi zuen eta aurretik ezarritako egunak errespetatuko zirela. Lanerako plana eta lan-taldeen banaketa onartu zen.

4. puntua: Eskola Kontseiluaren Urteko Lan Plana, 2004-2005 ikasturtea, bertaratutakoek onartu zuten.

5. puntua: Lehendakariak IDEIA aldizkariaren hurrengo zenbakian "Irakurketa ulerkorra" gaia jorratzeko proposatu zuen eta gainerako sektoreei euren iritzia galdetu zien. Antonio Marticorena jaunak gai hori beste gai zabalago batean barne hartzeko proposamena egin zuen, hala nola Lehen Hezkuntzako oinarrizko eskumenak. Lehendakariari baimena eman zitzaion gaia zehazteko.

6. puntua: Batzorde Iraunkorrak Hezkuntza Sailari Kontseiluaren funtzionamenduak sortutako gastuak konpentsatzeko eskatzea erabaki zuen, gaur egun defizita baitago.

7. puntua: Eskola Kontseiluaren egoitza aldaketa dela eta, Lehendakariak Batzorde Iraunkorrari baimena eskatu zion Hezkuntza Sailaren aurrean izapideak egiteko, hartara, egokitzapen-lanen baimena lortzeko.

8. puntua: 2005 urteko aurrekontuaren proposamena onartu zen.

9. puntua: 2004-2005 ikasturterako Lan Batzordeen osaera onartu zen.

10. puntua: Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen XVI. Topaguneak direla eta, Lehendakariak Eskola Kontseiluak Ministroarekin bildu zirela jakinarazi zuen. Bi-

lera hartan Ministerioak etorkizuneko hezkuntza-sistemarako egindako proposamena barne hartzen zuen agiria eman zitzaien.

Eskola Kontseiluetako Lehendakariek izandako bileraren berri eman zuen. Bilera hartan XVI. topaguneetan aztertuko ziren gaiei buruz hitz egin zen eta hasiera batean lortu zen akordioa "Itun Soziala" egiteko izan zen. 2004ko urriaren 13an Lehendakarien artean beste bilera bat egitea aurreikusi zela esan zuen.

Lehendakariak Batzorde Iraunkorrari proposatu zion itun soziala lortzeko beharrari buruzko azterketa onartu behar zela, hezkuntza-sistemako beste hainbat alderdi albo batera utzita.

Batzorde Iraunkorrean eztabaidatu zen Nafarroako Eskola Kontseiluak Ministra andreak emandako agiriari buruzko txosten bat lantzea komeni ote den.

Amaitzeko, Lehendakariak egindako proposamenaren arabera, lehenik eta behin topaguneei buruzko egutegi bat erabaki behar da ahal den azkarren eta, bigarrenik, agiri adostu bat lortzea komeni da, eduki abstraktua duena, horrela errazagoa izango baita Eskola Kontseilu Autonomikoen artean akordio batera iristea.

Lehendakariaren proposamena onartu zen.

11. puntua: Hurrengo osoko bilkuraren deialdiari eta gai-zerrendari dagokienez, Lehendakariak behar den unean emango duela informazioa jakinarazi zuen.

Galde-eskeak:

- Javier de Miguel Sáenz jaunak Eskola Kontseilua utzi zuen. Lehendakariak bere eskerrik beroena eman zion Nafarroako Eskola Kontseiluaren izenean, urtetan esleitu zaizkion funtzioak betetzeko egindako lan eta ahalegin handiagatik.
- Isabel Irigoyen Aristu andreak Hezkuntza Sailari eskatu zion eskola-egutegiko 175 irakas-egunen gainean araudi estatala zergatik aplikatu ez den erantzuteko. Era berean, Hezkuntza Sailari 2003-2004 ikasturteko ikasleen ebaluazioari buruzko datuak eskatu zizkion.
- Antonio Marticorena Valencia jaunak Sailak datu horiek abendua baino lehen argitaratuko zituela aurreikusi zuela erantzun zuen.
- Amaitzeko, Isabel Irigoyen andreak Hezkuntza Sailari 2004ko ekainean egindako galderen erantzunari buruzko galdetu zuen.

2004ko urriak 20

Honakoa gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Eskola Kontseilu Autonomikoen eta Estatukoen bilera Zaragozan.
3. Galde-eskeak.

1. puntua: 2005eko urriaren 5eko Batzorde Iraunkorraren akta onartu zen.

2. puntua: Lehendakariak Hezkuntza Ministroak aurkeztutako agiriaren txosten bat egiteko egokitasunari buruzko bileraren berri eman zuen. Bilera hartan erabaki zenez, hobe izango zen testua sakonki aztertu beharrean hezkuntzari buruzko itun orokor bat lortzeko beharra azpimarratzea.

Dena den, Batzorde Iraunkorraren iritzia galdetu zuen.

Miguel Laspalas Pérez jaunak adierazi zuenez ez zuen egokitzat eta beharrezkotzat jo Nafarroako Eskola Kontseiluak aipatutako agiriaren gaineko txosten bat egiteko beharra.

Lehendakariak adierazi zuenez, Ministroak emandako epeak kontuan hartuta ia ezinezkoa zen agiriaren eztabaida egitea, adostasun batera iristea eta txostena idaztea eta, ondorioz, honako neurri hauek proposatu zituen:

– Lehenik eta behin, adostasun batera iristeko, txosten bat landu zuen. Txosten horretan zehazten ziren Ministerioaren testuan egindako proposamenak eta Excel-eko taula bat. Taula horretan Kontseiluko sektoreek euren iritzia adierazi beharko zuten eta, ondoren, Zaragozako Eskola Kontseiluen topaguneetan eztabaidatu.

– Bigarrenik, zera adierazi zuen: 1998an Encuentro Fundazioa hezkuntza-sektore desberdinekin elkartu zen eta hezkuntzaren aldeko gizarte-adostasuna lortu zuen deklarazio bat egin zuten. Hori dela eta, aipatutako agiria Kontseiluko kideen artean banatzeko proposamena egin zuen, horien iritzia ezagutzeko eta, ondorioz, Zaragozako eskola-topaguneetara bidaltzeko. Agiritik egungo egoerarekin bat ez zetorrena kendu zen eta balioen hezkuntzari buruzko puntu berri bat gehitu zen.

Isabel Irigoyen Aristu andreak eta José Luis Larrea Cenoz jaunak uste dute oso garrantzitsua dela Nafarroako Eskola Kontseiluak Ministroak emandako agiria aztertzea eta Kontseiluaren iritzia kontuan hartzea.

Jorge Lanchas Rivero jaunak eta Fernando Barainca Lagos jaunak uste dute ez dela komeni agiria aztertzea, izan ere, ezinezkoa da adostasun batera iristea gaur egun, epeak eta izapideak ezinezkoak baitira. Hortaz, orain konponbiderik gabeko eztabaida bat sortuko litzateke.

Amaitzeko, Lehendakariak laburpen-agiria Kontseiluko kide guztiei bidaltzeko aukera proposatu zuen, hartara Kontseiluak ordezkatzen duen sektorearen iritzia ezagutu ahal izateko eta, ondoren, iritzi guztiak aztertu eta jaso ondoren, Zaragozara, Eskola Topaguneen egoitzara, bidaltzeko. Zaragozan laburtuko dira Eskola Kontseilu guztiek emandako iritziak eta berriro bidaliko dira Eskola kontseiluetara, iritzia emateko.

Proposamena onartu zen.

Galde-eskeak: Ez zen galde-eskerik egon.

2004ko azaroak 3

Honakoa gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Informazio orokorra.
3. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenaren zirriborro osoaren eztabaida, 2003-2004.
4. Galde-eskeak.

1. puntua: Lehendakariak adierazi zuenez, José Luis Larrea Cenoz jaunak honako idatzi hau aurkeztu zuen:

"*Aurreko bilkuraren gutuna irakurri ondoren, zuzenketa bat kontuan hartzeko eskaera egin nahi nuke edo, egokitzat jotzen baduzue, gaurko bileraren gutunean galde-eskeen atalean sartzeko.*

Ministroak Hezkuntzari buruzko lege berrirako egindako proposamena eztabaidatzeko dokumentazioaren bidalketari buruzkoa da. Aurreko bilera batean ez zen adierazi Encuentro Fundazioaren agiria gehitzen zenik. Balioen hezkuntzari buruzko paragrafoaren jakinaren gainean bageunden ere, nik beti pentsatu nuen Javierren iritzi pertsonala besterik ez zela eta ez zela banatuko, azkenean egin den moduan. Guk guztiok gure iruzkinak sartzeko aukera eduki behar genuela uste dut, baina ez zen horrelakorik egin.

Ondorioz, akta idazteko orduan Kontseiluko kideei bidaltzeko gehitutako paragrafoaren aurka nagoela adierazi aktan adieraztea nahi dut, edo, hala badagokio, akta honen galde-eskeen puntuan kontuan hartzea. Halaber, Batzorde Iraunkorrean ezer onartzen bada, aldeko botoak eta kontrako botoak adierazteko eskatu dute".

José Luis Larrea Cenoz jaunaren idatziaren edukia aztertu zen eta Batzorde Iraunkorreko kideek adierazi zutenez, Lehendakariak kontseiluko kide guztien artean banatzeko asmoa adierazi zuen, bakoitzak aztertzeko eta iruzkinak egiteko.

Ondorioz, ez zen bertan adierazitakoa aztertu eta aktan horrela adieraztea erabaki zen.

3. puntua: Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena 2003-2004 aztertu eta eztabaidatu ondoren, lehenengo zirriborroa onartu zen eta izapideekin jarraitu. Gainera, Lehendakariari testuan egin beharreko egokitzapenak egiteko baimena eman zitzaion.

2. eta 4. puntuak: Ez zen horiei buruzko daturik aurkeztu.

2004ko abenduak 9

Honakoa gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Informazio orokorra.
3. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren zuzenketen azterketa, 2003-2004 ikasturtea.
4. Galde-eskeak.

1. puntua: 2004ko azaroaren 3ko Batzorde Iraunkorraren akta onartu zen, aho batez.

2. puntua: Lehendakariak Batzorde Iraunkorreko kideei jakinarazi beharreko informazio berririk ez zegoela jakinarazi zuen.

3. puntua: Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko Urteko Txostenari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ziren (2003-2004 ikasturtekoa), eta honakoa lortutako emaitza:

Onartutakoak:	67
Atzera bota zirenak:	9
Baztertuak:	26

Onartutako testua Osoko Bilkuran aurkeztu zen 2003ko abenduaren 21eko bileran onartzeko.

Galde-eskeak, ez zen atal honetan barne hartzeko ezer gertatu.

2004ko abenduak 21

Honakoa gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Irakurketa sustatzeko hitzarmenaren proiektuari buruzko ebazpena eskatzea.
3. Galde-eskeak.

1. puntua: aho batez onartu zen.

2. puntua: Txostena eskatzeko, 12/2002 ebazpena, irakurketa sustatzeko hitzarmenaren proiektuari buruzkoa eta 2002ko urriaren 15ean emandakoa, baliagarritzat jotzea erabaki zen, gaur egungo eskaeraren antzeko hitzarmen bat delako.

3. puntua:

- Antonio Marticorena Valencia jaunak Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuaren antolamendurako Foru Aginduari buruzko txostenaren izapideei buruz galdetu zuen.
- Lehendakariak Marticorena jaunak aipatutako txostena Kontseilura iritsi zela adierazi zuen eta Kontseiluak txostena ahal bezain laster izapidetuko zuela adierazi zuen.

2005eko urtarrilak 11

Honakoa gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Informazio orokorra.
3. 2004ko bigarren seihileko kontuen azterketa eta, hala badagokio, onartzea.
4. Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoera ekonomikoaren azterketa.
5. "Guztiontzako kalitatezko hezkuntza" agiriaren zuzenketak aztertzea.
6. "Literatur Ibilbideak" hitzarmen-proiektuaren ebazpenaren eskaera.
7. 7. Galde-eskeak.

1. puntua: Bertaratutakoek aho batez onartu zuten.

2. puntua: Ez zen gairik eztabaidatu.

3. puntua: 2004ko bigarren seihileko kontuak onartu ziren.

4. puntua: Lehendakariak adierazi zuenez, Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoera ekonomikoa ahula zen, Batzorde Iraunkorreko kideei emandako agirietan adierazi bezala.

Lehendakariak egoera-txostena Hezkuntza Sailera bidaltzeko proposamena egin zuen eta egoerari konponbide ekonomiko egokia emateko eskatu zuen.

Hezkuntza Sailburuari bilera bat eskatzeko erabaki zen eta bertan Lehendakariak eta Batzorde Iraunkorreko kideek parte hartuko zuten.

5. puntua: Lehendakariak adierazi zuenez, txosten hori Zaragozako Biltzarreko eztabaidaren laburpena da gutxi gorabehera eta kontuan hartu behar da Zaragozara Eskola Kontseilu Autonomikoek banan-banan egindako iruzkinak bidali zirela.

Lehendakariak proposatu zuenez, Zaragozako Biltzarrera kontseiluko sektore desberdinen iritziak bidali behar ziren, lehen egin bezala. Gainera, Eskola Kontseiluetako Lehendakariak 2005eko urtarrilaren 20an Teruelen bilduko zirela adierazi zuen, eta egoki iritzi zion hezkuntza-mailako itun, itun sozial eta itun politiko bat lortzeari, baina horretarako urtarrilaren 20ra bitartean jasoko ziren iruzkin eta iritzi guztiak hartu behar ziren kontuan.

Proposamen horri buruzko eztabaidatu ondoren onartu egin zen.

6. puntua: Izapideak egiteko prozeduraren berri eman zen eta lehenago ere Sailak proiektu bera izapidetu zuela adierazi zen. Ondoren baztertu egin zen eta prozedura amaitu. Hezkuntza Sailak luzatutako proiektua 2004-2005 ikasturteari dagokio, hortaz, Lehendakariak bere garaian sortu zen azpibatzordera bidaltzeko eskatu zuen, adierazitako berresteko eta, ondoren, Kontseiluko kideei bidali eta zuzenketan izapideekin hasteko.

Lehendakariak egindako proposamena onartu zen.

Galde-eskeak: Ez zen egin.

2005eko urtarrilak 27

Gai-zerrenda:

- Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
- Informazio orokorra.
- Aragoiko Eskola Kontseiluak landutako laburpen-agiriaren azterketa. MECen agiriari buruzkoa da, "Guztiontzako kalitatezko hezkuntza" eta aurkeztutako zuzenketak barne hartzen ditu.
- Galde-eskeak.

1. puntua: Bertaratutakoek aho batez onartu zuen.

2. puntua:

- Lehendakariak adierazi zuenez, Batzorde Iraunkorreko kide diren Alfonso Aparicio Basauri jaunarekin eta Pedro Rascón Macías jaunarekin, Hezkuntza Sailburuarekin elkartu ziren eta honakoak sailburuak agindutakoak:
  1. Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitza berria eraikitzeko finantzaketari dagokion alderdia.
  2. Aurrekontuaren exekuzio arruntarekin jarraitzeko proposamena egin zuen eta aurrekontu-ekitaldiaren barruan, ahal denean, Hezkuntza Sailak laguntzea arazoa aztertu eta konpontzeko.

     Adierazitakoa kontuan hartuta, Lehendakariak 10 urteko txostena, urteko txostena eta IDEIA aldizkariarekin jarraitzeko proposamena egin zuen. Udaberriko jardunaldiak urteko datuak aztertu ondoren antolatuko ziren. Lehendakariak egindako proposamena onartu zen.
  3. 2006an Kontseiluaren berregituraketa ekonomikoa aztertzeko konpromisoa hartu zuen, egoera ekonomiko lasaiago bat lortuz gero.
- Lehendakariak Ikuskaritza Zerbitzua arautzen duen Foru Aginduaren proiektuari buruzko eztabaida egiteko proposatu zuen. Bertaratukoek onartu egin zuten proposamen hori. Kronograma amaitu eta Antolamendu Akademikorako Azpibatzordeari eta, horren baitan, A taldeari, ebazpena emateko eskatu zitzaion.

3. puntua: Lehendakariak adierazi zuenez, laburpen-agiria duen txostena azken unean iritsi zen eta Aragoi, Murtzia, Andaluzia eta Madrilgo Eskola Kontseiluetako Lehendakariek landu zuten. Adostasun baten bila aritu ziren, hartara ahalik gatazka edo arazo gutxien sortuko zituen testu bat lantzeko.

Lehendakariak laburpen-agiriari buruzko iritzia galdetu zien Batzorde Iraunkorreko kideei.

Agertutako iritziei buruz eztabaidatu ondoren, agiriaren edukiaren gainean konfiantza edukitzea erabaki zen, eta Kontseiluko kideek Zaragozako bileran parte hartzea, dagozkien erabakietan parte hartzeko.

Zuzenketei dagokienez, honako erabaki hauek hartu ziren:

– 2, 4, 5, 6, 7, 8, 10 eta 12 zuzenketak baztertzea, edukia onartzen ez delako edo adostasun nahikoa lortu ez dutelako.
– 1, 3 eta 13 zuzenketei dagokienez, ez zen adostasunik lortu; horrenbestez, adostasunik eza adieraziko da zuzenketen amaierako agirian.
– 9. zuzenketa onartzea.
– Ez da erabakirik hartu 11. zuzenketaren gainean eta Zaragozako bileran hartuko da erabakia.

Galde-eskeak: Ez zen bat ere egon.

2005eko apirilak 12

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkurako akta aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Informazio orokorra.
3. IDEIA aldizkariaren 21. zenbakiaren edukia.
4. Sailari INSE 2004-2005 eta lan-egutegia lantzeko datuak eskatzea
5. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektua lantzeko zirriborroa.
6. Galde-eskeak.

1. puntua: 2005eko urtarrilaren 27ko akata onartu zuten bertaratutakoek aho batez.

2. puntua: Lehendakariaren informazio orokorra:

– INSEren eta MEMORIAren maketazio-lana, 2003-2004 ikasturtea, abian da.
– IDEIA aldizkaria 19. zk.: 2005eko martxoaren 7an banatu zen eta 20. zenbakia prestatzen ari dira. Gai nagusia "matematikako adierazpena" izango da.
– Komunikabideetan burututako hainbat jardueren berri eman zen.

3. puntua: Lehendakariak adierazi zuenez, inmigrazioari buruzkoa izango zen proposatutako gaia.

4. puntua: Lehendakariak irakasgaien aurkibidea aurkeztu zuen eta bertan aurreikusitako egitura aurreko urtean erabilitako berdina dela adierazi zuen. Lan-egutegia eta proiektua idazteko ardura izango duten taldeak onartu ziren.

5. puntua: Lehendakariak LOEren testua Kontseiluko kide guztiei bidali zitzaiela jakinarazi zuen. Informazioa eman eta eztabaidatu ondoren, honako akordio hauek hartu ziren:

Lehenengo akordioa: *Hezkuntza Sailari Eskola Kontseilu Autonomikoei kontsultak egiteko izapideekin hasteko eskatu zitzaion, hartara joan den otsailaren 4an, "Jornadas sobre aportaciones de los Consejos Escolares Autonómicos y del Estado" jardunaldietan, Zaragozan bildutako Eskola Kontseilu Autonomikoetako Lehendakariek aho batez adierazitakoa betetzeko.*

Bigarren akordioa: *Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak Lege Organikoaren gaineko eztabaida, aurkezpen edo informaziorik eman behar badu, Nafarroako Eskola Kontseilua eta bere kideek parte hartzeko eskubidea edukitzea, gainerako gonbidatuekin batera.*

6. puntua: Ez zen eztabaidagairik aurkeztu.

5

Aldi Baterako Batzordeen Jarduerak

Eskola Kontseiluaren Informazio Buletina lantzeko batzordea

Batzorde honetako kideak Batzorde Iraunkorraren kideak izan ziren.

2004-2005 ikasturtean IDEA aldizkariaren 18., 19. eta 20. zenbakiak kaleratzeko beharrezko bilerak egin ziren, bilera arruntekin batera.

Aldizkaria Nafarroako ikastetxe guztietan banatzen da, bai publikoetan bai itunduetan eta Hezkuntza-administrazioan, unibertsitate, liburutegi, fitxategi, Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoetan banatzen da.

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Urteko Txostenaren batzordea, 2003-03 ikasturtea

Batzorde Iraunkorreko kideak izan ziren batzorde honetako kideak.

Lanaren lehenengo fasean honela bereizi ziren funtzioak:

1. taldea (1. Legegintza-garapena /2.Legegintza-iruzkinak/3. Laguntza-sistema orokorrak / Memoria):
Antonio Iriarte Moncayola jn.
Isabel Irigoyen and.
José Jorge Lanchas Rivero jn.

2. taldea (4. Giza baliabideak / 5. Ikastetxeak / Ikasleak):
Antonio Marticorena Valencia jn.
Miguel Laspalas Pérez jn.
Javier de Miguel Sáenz jn.

3. taldea (7. Euskara /8. Aurrekontuak):
Javier Marcotegui Ros jn.
Fernando Barainca Lagos jn.
José Luis Larrea Cenoz jn.

Gaiari buruz hitz egiteko Batzorde Iraunkorraren hiru bilera egin ziren: urriaren 5ean, azaroaren 3an eta abenduaren 9an.

Bigarren fasean, lehenengo zirriborroarekin amaitzeko, Batzorde Iraunkor osoak lan egin zuen. Lehenengo zirriborroa azaroaren 8an amaitu zen eta osoko bilkurako kide guztiei bidali zitzaien egokitzat jotzen zituzten zuzenketak aurkezteko. Horretarako epea 2004ko abenduaren 2an amaitzen zen.

102 zuzenketa aurkeztu ziren. 70 onartu ziren, osorik zein zati bat, 18 baztertu egin ziren eta 14 ez ziren onartu.

Onartutako zuzenketekin beste zirriborro bat osatu zen eta 2004ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu zen: 17 aldeko boto, 1 kontra eta 4 abstentzio.

2005eko ekainean argitaratu zen txostena eta Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu guztietara, Hezkuntza Administraziora Nafarroako Parlamenturako Hezkuntza Batzordera eta Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatuko guztietara, bai eta Foru Erkidegoko komunikabideetara eta prentsa espezializatura.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoria 2003-2004 lantzeko txostena

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakariak egin zuen memoria.

Memoriarekin jarraitutako prozesua Hezkuntza Sistemaren txostenarekin jarraitutakoa da. 2004ko abenduaren 21eko Osoko Bilkuran aho batez onartu zen.

2005eko ekainean argitaratu eta banatu zen agiria.

Eskola Kontseilu Autonomiko eta Estatukoen "Guztiontzako kalitatezko hezkuntza" Topaguneetan parte hartu zuen Batzorde teknikoa

Batzorde Iraunkorreko kideek osatu zuen Batzorde hau.

Memoriaren 4.1 atalean adierazi da jarraitutako prozesua.

Otsailaren 2, 3 eta 4ean bildu ziren Eskola Kontseiluak Zaragozan eta Nafarroako Eskola Kontseiluko lau kide bertaratu ziren:

Javier Marcotegui Ros jn., Lehendakaria.

Fernando Barainca Lagos jn., Batzordekidea, ikastetxe pribatuen irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA).

Alfonso Aparicio Basauri jn., Batzordekidea, Gurasoen Elkartearen ordezkaria (CONCAPA)

José Luis Sesma Sánchez jn., Batzordekidea, ikastetxe publikoen irakasleen ordezkaria (CC.OO.)

1/2005 ebazpen-txostena, MEC-Nafarroako Gobernua hitzarmenari buruzkoa, "Literatur Ibilbideak"

Honakoak Batzordekideak:

Pedro Olangüa Baquedano jn.

Isabel Irigoyen Aristu and.

José Jorge Lanchas Rivero jn.

Rosario Repáraz Abaitua and.

Fernando Barainca Lagos jn.

Bilera bat egin zen. 2005eko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkurara bidali zen lehen zirriborroa, zuzenketaren ereduarekin batera. Ez zen zuzenketarik aurkeztu eta otsailaren 20an bigarren zirriborroa bidali zen.

2005eko martxoaren 2an onartu zuen Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak eta martxoaren 3an bidali zitzaion Hezkuntza Sailburuari.

2/2005 ebazpen-txostena: "Ikuskaritzaren antolamendua eta funtzionamendua" Foru Aginduaren zirriborroa

Honakoak Batzordekideak:

Julián José Garrido jn.

Iñaki Iraizoz Zubeldía jn.

José Luis Larrea Cenoz jn.

Alfonso Aparicio Basauri jn.

Javier Navallas Rebolé jn.

Fernando Barainca Lagos jn.

Bi bilera egin ziren. Lehenengo zirriborroa 2005eko otsailaren 9ko Osoko Bilkurara bidali zen, zuzenketa-ereduarekin batera; otsailaren 18an amaitzen zen epea. 5 zuzenketa jaso ziren, 3 onartu egin ziren, 1 baztertu eta beste bat atzera bota. Otsailaren 23an bidali zen bigarren zirriborroa.

2005eko martxoaren 2ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu zuen eta martxoaren 3an bidali zitzaion Hezkuntza Sailburuari.

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko urteko txostenaren batzordea, 2004-05 ikasturtea

Apirilaren 12ko Batzorde Iraunkorrak onartu zituen proiektuaren lan-egutegia eta proiektua idazteko ardura izango duten taldeak. Apirilaren 14an Hezkuntza Sailburuari txostena lantzeko beharrezkoak ziren datuak eskatu zitzaizkion eta uztailean eta abuztuan jasotako zenbait datu sartu ziren txostenean.

6 Emandako Ebazpenak eta Txostenak

Alfonso Aparicio Basauri jn.
Gurasoen Elkarteen Federazioko ordezkaria CONCAPA.

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria.

Esteban Garijo Pérez jn.
Parlamentuko ordezkaria.

Ignacio Mª. Iraizoz Zubeldía jn.
Ikastetxe pribatuen ordezkaria.

Isabel Irigoyen Aristu and.
Gurasoen Elkarteen Federazioa, HERRIKOA.

Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria ANEGFERE

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria.

Antonio Marticorena Valencia jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundeetako ordezkaria.

1/2005 ebazpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2005eko martxoaren 2an egindako bileran –alboan adieraziko pertsonek parte hartu zuten-, honako ebazpen hau eman du, aho batez, MEDC-Nafarroako Gobernuak 2004-2005 ikasturtean **"Literatur Ibilbideak"** lurraldeko lankidetza-programa garatzeko zirriborroaren gainean.

1. Arau Aurrekariak

Eskola Kontseiluak aztertu beharreko hitzarmena 10/02 LOren, abenduaren 23koa[2] eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 6. artikuluko agindua gauzatzen duten lurraldeko lankidetza-programekin erlazionatuta dago.

Agindu hori betetzeko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoen arteko hitzarmenak egiten dira, bakoitzari dagozkion eskumenen arabera. Eskumenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan, Estatuko[3] eskumen esklusiboei buruzkoa, barne hartuta daude, bai eta 13/1982 LOn, abuztuaren 10ekoa eta Nafarroako Foru Erregimena hobetzen duena[4].

---

[2] 6. art. *"Estatuak, Autonomia Erkidegoen laguntzarekin, interes orokorretako hezkuntza-helburuak betetzera zuzendurako lurraldeko lankidetza-programak sustatuko ditu. Programa horien helburu nagusia ikasleei Espainiako kultur aberastasuna ezagutzen eta miresten laguntzea da, modalitatearen arabera eta, era berean, lurraldeen arteko elkartasuna sustatzea".*

[3] 6. art. *"Estatuak, Autonomia Erkidegoen laguntzarekin, interes orokorretako hezkuntza-helburuak betetzera zuzendurako lurraldeko lankidetza-programak sustatuko ditu. Programa horien helburu nagusia ikasleei Espainiako kultur aberastasuna ezagutzen eta miresten laguntzea da, modalitatearen arabera eta, era berean, lurraldeen arteko elkartasuna sustatzea".*

[4] 47. art. *"Nafarroari dagokio irakaskuntza arautzea eta administrazioa, alderdi, maila, modalitate eta espezialitate orotan, betiere esparru honetarako Konstituzioak adierazitakoaren, Lege Organikoek adierazitakoaren eta Estatuak titulu akademiko profesionalak lortzeko, luzatzeko eta homologatzeko dituen eskumenen eta hori guztia kontrolatzeko eta bermatzeko Estatuak egin beharreko ikuskaritzaren kaltetan izan gabe".*

Rosa Mª Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioen ordezkaria-HERRIKOA.

Ignacio Recondo Aizpuru jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Mª Rosario Repáraz Abaitua and.
Nafarroako Unibertsitatea.

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe Publikoetako irakasleen ordezkaria CCOO.

2- Foru Dekretuaren zirriboarren deskribapena

Azalpen-zati bat eta zazpi oinarri ditu hitzarmenak.

Azalpen-zatian hitzarmenaren tituluak barne hartzen dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleen artean irakurketa sustatzeko helburuak zehazten ditu eta beste autonomia-erkidego batzuetako aberastasun naturala eta kulturala ezagutzeko eta miresteko balio du.

Xede horrekin, irakurketaz baliatuz, hitzarmenaren bidez ikasleek beste autonomia-erkidego batzuetako "Literatur Ibilbideak" bete ditzaten lortu nahi da.

Lehenengo oinarrian hitzarmenaren xedea aipatzen da, hain zuzen "Literatur Ibilbideak" hezkuntza-programa garatzea.

Bigarren oinarrian Nafarroako Foru Erkidegoko ikasleen parte-hartzea adierazten da. 26 lagunek osatutako lau talde egingo dira: talde bakoitzean 2 irakasle eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako 24 ikasle egongo dira. Taldeak osatzeko zeregina Nafarroako Foru Erkidegoari dagokio, adierazitako irizpide orokorrak jarraituko direlarik. MECek egingo diren ibilbideak eta horretarako datak zehazten ditu.

Hirugarren oinarriak zehazten ditu Foru Erkidegoan "Literatur Ibilbidearekin" erlazionatutako alderdiak. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokio diseinua egitea. Astebeteko iraupena izango du, egunean beharrezkoa den distantzia, ibilbidea eta denboraren arabera. Edukia liburu, pertsonaia eta egile batekin erlazionatuta egongo da eta horren bidez ezagutuko da Nafarroako historia, gizarte-errealitatea, hizkuntz errealitatea, errealitate kulturala eta naturala.

Laugarren oinarriak antolatzen du jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzorde misto paritarioak eduki beharreko osaera, funtzioak eta biltzeko erregimena.

Bosgarren oinarrian agiria sinatu duten aldeen ekarpenak zehazten dira. Alegia, mantenua, ostatua, jarduera prestatzeko gastuak, ikasleen garraioa, bai Nafarroako ikasleen kasuan, beste erkidego bateko ibilbidea egitean, bai beste erkidego batzuetako ikasleen kasuan, Nafarroako ibilbidea egitean. Ministerioak aseguru-poliza bat hartuko du ikasle guztientzat, istripuak eta heriotza estaltzeko.

Seigarren oinarrian programan gehienez sar daitezkeen ikasleak adierazi dira, bai eta beharrezko finantzaketa-bitartekoak eta kudeaketa- eta justifikazio-moduak ere.

Zazpigarren oinarriak 2004/05 ikasturterako ezartzen du hitzarmenaren indarraldia, nahiz eta luzatzeko aukera dagoen. Luzapenik egiten bada, finantzaketarekin erlazionatutako alderdiak eta ikasle eta taldeen gehienezko kopurua errespetatuko dira.

3. Iradokizunak eta Oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluak egokitzat jo du Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean sinatutako lankidetza-hitzarmena, horri esker irakurketa sutatzeaz gain, beste erkidego baten errealitate soziala, kulturala, naturala eta hizkuntz errealitatea ezagutuko baitute ikasleek.

Proiektua ikasleen benetako beharretara eta eskakizunetara egokitzen da.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an

OI
Lehendakaria, Javier Marcotegui Ros Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA
ETA KULTURA SAILBURUA

Alfonso Aparicio Basauri jn.
Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA.

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria.

Esteban Garijo Pérez jn.
Parlamentuko ordezkaria.

Ignacio Mª. Iraizoz Zubeldía jn.
Ikastetxe pribatuen ordezkaria.

Isabel Irigoyen Aristu and.
Gurasoen Elkarteen Federazioa, HERRIKOA.

Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria ANEGFERE

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria.

Antonio Marticorena Valencia jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundeen ordezkaria.

Rosa Mª Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

2/2005 Ebazpena

2005eko martxoaren 2an bildutako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak –alboan adierazi dira bertaratu zirenak- ondoren adierazitako ebazpena eman du aho batez, **"365/1999 Foru Dekretua –irailaren 13koa eta Hezkuntza Sailaren Ikuskaritzaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duena- garatzen duen Foru Agindua"** izeneko zirriborroaren gainean.

1. Arau Aurrekarriak

Irakatsi eta ikasteko prozesuen kalitatea da hezkuntza-sistemaren funtsezko elementuetako bat. Eta prozesuaren kalitatea ziurtatzeko ezinbestekoa da elementu sozialak, hezkuntzaren protagonista zuzenak eta botere publikoak nahastea eta kalitatearen alde lan egitea. Hezkuntza-sistemaren ikuskaritza eta ebaluazioa, bestalde, Espainiako legeetan kalitatea ziurtatzeko printzipio gisa azpimarratu dira. Horixe da LOCEren I k) artikuluak dioena[5].

Xede horrekin, Legearen arabera ikuskaritza-funtzioa botere publikoen zeregina izango da, horren bidez legeak betetzen direla eskubideak bermatzen direla eta hezkuntza-prozesuan eta hezkuntza-sistemaren eta irakaskuntza-

[5] 10/2002 LO, hezkuntzaren kalitateari buruzkoa eta abenduaren 23koa (2002ko abenduaren 24ko BOE), 1. artikulua.- Printzipioak. Hezkuntza-sistemaren kalitatezko printzipioak dira: k) Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta ikuskaritza, bai diseinua eta antolamendua, bai irakatsi eta ikasteko prozesuak.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria -HERRIKOA.

Ignacio Recondo Aizpuru jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria.

Mª Rosario Repáraz Abaitua and.
Nafarroako Unibertsitatea.

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkariaCCOO.

ren hobekuntza-prozesuan nahastutako eskubideak eta betebeharrak azpimarratzeko[6]. LOCEren[7] 105. artikuluan adierazi dira dagozkion funtzioak (9/1995 LOaren, azaroaren 20koa eta ikastetxeen parte-hartze, ebaluazio eta aginteari buruzkoa, IV. Tituluko, Hezkuntza ikuskaritzari buruzkoa, 36. artikuluaren eduki berbera du[8]. Lege horren ondorioz indargabetuta geratu zen LOGSEren 61. artikuluaren 2. atala, Ikuskaritzaren funtzioak zehazten zituena.

Helburu horiek betetzeko, 365/1999[9] FDk, ikuskaritza-funtzioa arautu du eta, horren arabera, kalitatezko irakaskuntza lortzeko eragina duten faktore guztiak zuzen eta modu harmoniatsuan funtzionatzen dutela ziurtatu behar da.

Dekretu honek Hezkuntza eta Kultura Sailburua baimentzen du dekretua betearazteko eta garatzeko beharrezko xedapenak emateko. Orain arte ez da horrela-

---

[6] Cit sup. 102. art., hezkuntza-sistemaren ikuskaritza. 1. Botere publikoen eskumena eta erantzukizuna da hezkuntza-sistema aztertzea. 2. ... Ikuskaritza-funtzioa ... legeak betetzen direla ziurtatzeko egingo da, eta eskubideak errespetatzen direla eta irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten alde guztien betebeharrak errespetatzen direla ziurtatzeko eta hezkuntza-sistema eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzen direla ziurtatzeko egingo da.

[7] Cti sup Art. 105. Funtzioak. 1. Ikuskaritzaren funtzioak dira a) Ikuspegi pedagogikotik ikastetxeen funtzionamendua kontrolatzea eta gainbegiratzea, titulartasun publikokoak eta pribatukoak. b) Irakaskuntza-praktika gainbegiratzea eta etengabeko hobekuntzaren alde lan egitea. Zentroen funtzionamendua hobetuko da bai eta hezkuntza-erreformako eta berrikuntza pedagogikoko prozesuak ere. c) Hezkuntza-sistemaren ebaluazioan parte hartzea, batez ere ikastetxe, zuzendaritza-funtzio eta irakasfuntzioarekin erlazionatutako alderdietan. Horretarako antolamendua, funtzionamendua eta emaitzak aztertuko dira. d) Ikastetxeetan hezkuntza-sisteman indarrean dauden legeak, araudiak eta gainerako xedapenak betetzen direla arduratzea. e) Hezkuntza-erkidegoko sektoreei dagozkien eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko orduan aholkularitza ematea, orientatzea eta informazioa ematea. f) Eskumeneko hezkuntza-administrazioek sustatu edo baimendutako hezkuntza-programei eta –jarduerei buruzko informazioa ematea. Era berean, irakaskuntzarekin erlazionatutako beste edozein alderdiri buruzko informazioa ematea, baldin eta eskumeneko agintaritzak eskatzen badu edo araudiak agintzen badu

[8] 5/1995 LO, azaroaren 20koa eta ikastetxeen parte-hartze, ebaluazio eta aginteari buruzkoa. Xedapen indargabetzailea bakarra (1995eko azaroaren 21eko BOE).

[9] 365/1999 FD, irailaren 13koa eta Hezkuntza eta Kultura Sailaren Ikuskaritzaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duena eta Hezkuntzako Ikuskarien lanpostuak lortzeko eta hornitzeko sistema ezartzen duena. (122. zk. NAO, 1999ko urriaren 1ekoa).

korik egin. Hori dela eta, FAren zirriborro honen bidez aipatutako FDko alderdi orokorrak garatu eta zehaztu nahi dira, ondoren Ikuskaritza Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren antolamendua eta funtzionamendua orientatzeko eta errazteko; era berean, Sailak ezarritako lehentasunak eta hartuko dira kontuan eta arauak gomendatzen dituen aldaketak egingo dira.

Bien bitartean, indarrean dagoen arauaren bidez lortutako esperientziak agerian utzi ditu hainbat arazo eta akats eta txostena egiteko aurkeztutako testuan zuzendu behar dira guztiak. Horretarako inguruko herrialdeetako eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-ikuskaritzako funtzionamendua aztertu da.

Bestalde, aurkeztutako arauaren zirriborroaren bidez Ikuskaritzaren antolamendu eta funtzionamenduari izaera egonkorragoa eta iraunkorragoa eman nahi zaio eta ikasturte bakoitzerako adierazitako ezaugarriak eta ebazpenak kontuan hartu nahi dira. Adierazitakoa kontuan hartuta, proposatutako foru-arauan Zerbitzuaren antolamendurako eta funtzionamendurako orientazio berriak barne hartu dira, aipatutako FDren esparruan. Alderdi horiek guztiak hitzaurrean zehaztu dira.

Hezkuntza-ikuskaritzari buruzko lege-arau aplikatzeko orduan ez du inolako eraginik izango 1318/2004 EDk, maiatzaren 28koa eta 827/2003 ED, ekainaren 27koa[10] aldatzen duena eta LOCE ezartzeko egutegia adierazten duena.

2. Foru Dekretuaren zirriborroarren deskribapena

Txostenaren xede den arauaren proiektuak hitzaurrea eta 32 artikulu ditu; artikuluak zazpi kapitulutan antolatu dira eta zazpi kapitulu horiek hiru titulutan daude multzokatuta. Bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, hiru amaierako xedapen eta eranskin bat ditu.

Hitzaurrean FAren xedea aipatzen da. Azken urteetan zerbitzuaren funtzionamenduan antzeman diren hainbat arazo eta oztopo konpontzeko beharra azpimarratzen da; inguruko herrialde eta autonomia-erkidegoetako ikuskaritza-ereduari eta dagozkion oinarrizko funtzioei buruzko eztabaida hartu da erreferentzia gisa; irakaskuntzaren kalitatearen eta hobekuntzaren kultura lortzeko, kudeaketa-sistemak ezartzea komeni dela azpimarratzen du; Nafarroako berariazko ezaugarriek eta ezaugarri bereziek hezkuntza-ikuskaritzaren funtzionamendua baldintzatzen dutela azpimarratzen du. Amaitzeko, xede den arauaren bidez Ikuskaritzaren antolamenduari eta funtzionamenduari izaera egonkorragoa eta etengabekoagoa

[10] 1318/2004 ED, maiatzaren 28koa eta 827/2003 ED, ekainaren 27koa aldatzen duena. Azken EDak ezartzen du 10/2002 LOak, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, (130. zk. BOE, 2004ko maiatzaren 29koa) ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren ezarpen-egutegia.

emateko garrantzia azpimarratzen du. Eta, azkenik, 365/1999 FAren esparruan egindako orientazio berriak eta aldaketak aipatzen ditu.

Lehenengo tituluak barne hartzen ditu 1. artikulua eta bost kapitulutan antolatutako kapitulu bat, eta antolamenduaren eta funtzionamenduaren printzipioak aztertzen ditu.

1. artikuluka 365/99 FDaren 4. artikuluan antolamenduarekin erlazionatutako printzipioak aipatzen ditu. Printzipio bakoitzaren edukia azaltzen du: hierarkia, plangintza, talde-lana, espezializazioa, profesionaltasuna eta ebaluazioa.

Lehenengo kapitulua ikuskaritzaren funtzioei buruzkoa da.

2. artikuluak garatzen du kontrolatzeko eta gainbegiratzeko funtzioak. Hezkuntza-ikuskaritzak kontrolatu eta gainbegiratu beharreko alderdiak aipatzen ditu, titulartasun publiko zein pribatuko zentroetan.

3. artikuluak ebaluazioari buruz hitz egiten du eta ikuskaritzari dagozkion jarduerak zehazten ditu. **INESCEk** antolatutako ebaluazio-proiektuetan parte hartzeko aukera barne hartzen du.

4. artikuluan ikuskaritzaren berezko aholkularitza-funtzioak aipatzen dira eta aholkularitzaren eta informazioaren xede diren pertsonak zehazten dira.

5. artikuluan hezkuntza-administrazioak informazioa emateko duen funtzioa aipatzen da. Informazio hori ofizioz emango da edo alde batek eskatzen duenean; edozein kasutan, zerbitzuaren jardueren planei eta helburuen betetzeari buruzko informazio emango da.

6. artikulua irakas-funtzioa hobetzeko laguntzari buruzkoa da, eta ikuskaritzak egin beharrekoak aipatzen ditu: epaimahaietan, batzar eta batzordeetan parte hartzea; zentroetan plantillak osatzea, ikasleak eskolatzea eta araudiaren garapena egitea.

Bigarren tituluan garatzen da ikuskaritza teknikoaren eta zerbitzuen ikuskaritzaren egitura. 7., 8. eta 9. artikuluek osatzen dute eta beste hiru kapitulu ditu, 10 artikulu gehiagorekin.

7. artikuluan zehazten dira zerbitzua antolatzeko irizpideak. Besteak beste, ikuskaritza-funtzioarekin eta erlazionatutako eskumen generikoak eta ikuskariekin erlazionatutako berariazko eskumenak sustatzea; etengabe hobekuntza eta kalitatea, talde-lana, bakuntasuna eta eraginkortasuna. Hori dela eta dira hain garrantzitsuak zerbitzuaren organo egituratzaile gisa osatutako ikuskaritza-zonak.

8. artikuluak zerbitzuaren egitura zehazten du. Zerbitzuaren Zuzendaritza, ikuskaritza-zonak curriculum-arloak eta berariazko arloak bereizten dira.

9. artikuluan zerbitzuaren zuzendaritzari dagozkion funtzioak zehazten dira, FDren 6. artikuluan adierazitakoaren arabera. Berariaz garatzen ditu zerbitzuaren

lana antolatzeko funtzioak eta, xede horrekin, ikuskari koordinatzaile baten laguntza ematen du.

Lehenengo kapituluan ikuskaritza-zonak arautzen dira.

10. artikuluan ikuskaritza-zonak antolamendu eta funtzionamendurako funtsezko egitura gisa aurkezten dira. Lau zonatan bereizten ditu zerbitzuaren funtzioak eta zona bakoitzari funtzio eta zeregin zehatzak ematen dizkio. Zonen funtzio komunak adierazten ditu eta ikuskariak dagozkien zonetara atxikitzeko beharra azpimarratzen du.

11. artikuluan zona bakoitzeko ikuskari-taldearen zeregina arautzen da. Ikuskari-taldeak dira zonako koordinazio, parte-hartze, lankidetza eta prestakuntzaren arduradunak. Taldeei dagozkien funtzioak adierazten dira.

12. artikulua ikuskaritza-zonetako koordinatzaileei buruzkoa da: kopurua, izendapena, kargua uztea eta funtzioak. Zerbitzuaren zuzendaritzari laguntzeko funtzio dagokio. Taldeari dagozkion funtzioak definitzen ditu.

13., 14., 15. eta 16. artikuluetan zona bakoitzaren berariazko funtzioak adierazten dira, aipatutako generikoez gain.

17. artikuluak ikuskaritza-zona bakoitzerako urteko lan-planak idazteko agindua ematen du, bai eta lana gauzatu ondoren egindako kontrola memoria batean adierazteko agindua ere.

Bigarren kapituluak antolatzen ditu curriculum-arloak.

18. artikuluak 365/1999 FD garatzen du, hortaz, bertan arautzen dira: curriculum-arloak, ikuskariek maila, zentro, programa eta zerbitzu desberdinetan beharrezkoa duten antolakuntzaren eta jardunaren esparru bezala; ikuskaritza gainbegiratzearekin eta ebaluazioarekin batera egitea eta Saileko beste unitate batzuekin batera lan egitea. FDren 11.2 artikuluaren arabera adierazi dira arloak eta 3. XG-ko edukia. Arloei dagozkien funtzioak eta ikuskariak aipatutako arloetara atxikitzeko irizpideak adierazten ditu. Arloko ikuskari guztiek talde bat osatzen dute eta ikuskari arduradun bat dute taldeburu.

Hirugarren kapitulua berariazko lan-arloei buruzkoa da.

19. artikuluak, 365/1999 FDren 3. XGren arabera, berariazko lan-arloak xedatzen ditu. FDan aurreikusitakoez gain, honakoak sortzen ditu: Kalitatea eta kudeaketa; Giza Baliabideak; Hezkuntza-premia bereziak; Kultur aniztasuna eta orientazioa; Lanbide Heziketa; Teknologia Berriak; Ikastetxeak; Irakasleen Prestakuntza; Ikasleen ebaluazioa; Lehen eta Haur Hezkuntza; Gaztelania eta Literatura eta Euskara eta Literatura; Erregimen bereziko irakaskuntzak. Bakoitzari dagozkion funtzioak adierazi dira. FDan adierazitako ebaluazio-arloa honako atal hauek osatzen dute: Programen ebaluazioa, Irakasleen ebaluazioa, Nazioarteko ebaluazio-proiektuak eta Hezkuntzaren adierazleak. Bakoitzari dagozkion funtzioak adierazi dira,

FDan adierazitakoaren arabera, FAren zirriborroan zonei buruzko berariazko artikuluaren arabera, zuzendaritzaren funtzioei buruzko 9. artikuluaren arabera eta eranskinean jarraitutako prozesuen edukiaren arabera.

Hirugarren tituluak ikuskaritzaren funtzionamendua antolatzen du. Hiru kapitulutan bereizita dago.

Lehenengo kapituluan ikuskaritza-funtzioa garatzen da.

20. artikuluak zerbitzuaren funtzionamendurako irizpideak adierazten ditu. Honako hauek dira irizpideak: funtzioak modu antolatuan, koordinatuan eta taldean garatuko dira; ikastetxeek antolamendu-mailako autonomia eta autonomia pedagogikoa edukiko dute; ikastetxea funtzioak betetzeko esparru natural gisa ulertuko da; parte-hartzea eta erantzukizunak hartzea sustatuko da; era berean, ikastetxeek eta irakasleek ikuskaritza-lanetan parte hartzeko eta laguntzeko bideak erraztuko dira; jardueraren bidez prestakuntza eta aholkularitza eskainiko da eta ebaluazio-kulturara zuzenduko da; etengabeko prestakuntza sustatuko da; jarduera eraginkorrak lortzeko ikastetxeetako errealitatea ezagutu behar da eta jarduera teknikoak eta ikuskaritza-funtzioaren deontologiaren araberakoak egingo dira.

21. artikuluak ikuskaritza-funtzioari buruz hitz egiten du. Ikuskariak aurretik behar dituen jarrera eta ekintza batzuk aipatzen ditu, hain zuzen dagokion lanaren ohiko sistema osatzen dutenak.

22. artikuluak ikuskaritzaren bisitak antolatzen ditu eta 365/1999 FAko 3 a) artikulua aipatzen du. Bisita arruntak eta apartekoak bereizten ditu. Plangintza, koordinazio eta eraginkortasunaren printzipioen arabera egingo dira. Bakoitzarekin txosten bat landuko da.

23. artikuluak ikuskaritzako txostenak aztertzen ditu. Aurreikusitako ereduen arabera egingo dira. Ikastetxeek eta hezkuntza-administrazioak jasoko dituzte txosten horiek.

24. artikuluan zerbitzuaren barne-funtzionamendua aurreikusi da. Esku-hartzea egiteko irizpideen homogeneizazioa bilatuko da. Eta irizpideak homogeneizatzeko zerbitzuko ikuskariak, zonako taldeen koordinatzaileak eta zonako taldeak bilduko dira. Araudia eta agiriak eguneratzeko funtzio orokorrak beteko dira. Ikuskari bakoitzak, zerbitzuko organoetako koordinatzaileek eta zerbitzuak berak sortutako dokumentazioa gordeko eta artxibatuko da.

25. artikuluan ikuskarien zentroen atxikipena adierazten da. Curriculum-zona eta –arloetara atxikitzeaz gain, ikuskariak zentro, programa, hezkuntza-zerbitzu eta –jarduera eta esku-hartze eta antolatutako zereginetara atxikiko dira. Xede horrekin bereziki azpimarratuko dira berdintasuna, espezializazioa eta bateragarritasunaren printzipioak, karguak eta esperientziaren irizpideak, titulazioa eta prestakuntza, arloetarako atxikipena, ikastetxeen tipologia eta titulartasuna, plantillaren antzinatasuna, eskola-barrutiekiko koherentzia, D ereduko ikastetxeei arreta egokia. Atxi-

kipena egiteko ikastetxe, programa eta hezkuntza-zerbitzuen multzoak bereiziko dira eta denbora mugatu egingo da, salbuespenetan izan ezik. Esleipen honekin erlazionatutako funtzioen erantzukizun zuzena ikuskariarena da, esku hartu behar duten gainerako ikuskarien kaltetan izan gabe.

26. artikuluan zerbitzuaren kanpoko laguntzei buruz hitz egiten da. Profesional adituen kanpoko laguntza onartzen da, bai eta irakasleen eta zerbitzura atxikitako irakas-langileen arteko lankidetza ere.

Bigarren kapituluan zerbitzuaren jardueren plangintza orokorrari buruz hitz egiten zaigu. Hiru artikuluk osatzen dute.

27. artikuluak garatzen du esku hartzeko plan orokorrari buruzko FDren 9-1 artikulua. Plana lau urtekoa izango da. Plan hori urteko plan bakoitzean zehazten eta garatzen da.

28. artikulua urteko ikuskaritza-planari buruzkoa da.

29. artikulua. Prozesuak kudeatzeko sistemari buruzkoa da. Ikuskaritzari dagozkion jarduera guztiak antolatzen ditu, testuaren eranskinean barne hartutako prozesuen kudeaketa-sistemaren bidez. Prozesu-multzo bakoitza ikuskaritza-zonako arduradunekin erlazionatuta dago.

Hirugarren kapituluak erakunde-mailako ebaluazioari eta prestakuntzari buruz hitz egiten du. Hiru artikulu ditu.

30. artikulua, ikuskaritzaren ebaluazioari buruzkoa. Ikuskaritza-planen barruko eta kanpoko ebaluazio egitea nahitaezkoa dela adierazten da eta, xede horrekin, sistema egoki bat eta adierazle egokiak erabiliko dira.

31. artikuluan ikuskarien erakunde-prestakuntzari buruz hitz egiten da eta FDren 26. artikulua garatzen du. Prestakuntza-prozesua antolatuko duten irizpideak eta prestakuntza-jardueren lehentasunezko edukiak ezartzen ditu.

32. artikuluan prestakuntza-jarduerei buruz hitz egiten da. Prestakuntza-jardueren plangintza lau urteko jarduera-plan orokorrean barne hartuko da. Ikuskaritzako jarduera arruntak prestakuntza-prozesuan garrantzi handiko baliabidetzat jotzen ditu, baina bestelako jarduerak ere barne hartzen ditu. Xede horrekin, prestakuntza-erakundeekin lankidetza-akordioak egitea ahalbidetzen du eta ikuskariek baimenak lortzeko modua errazten du, zerbitzuaren beharren kaltetan gabe.

1. xedapen gehigarriak 365/1999 FDren, hutsik dauden postuak hornitzeko, III. Titulua aipatzen du. Behin-behineko ikuskarien izendapena ahalbidetzen du, 365/1999 FDaren 2. XGren arabera.

2. xedapen gehigarriak eranskinean barne hartutako prozesuak eguneratzeko aukera ematen du

Xedapen indargabetzaileak indargabetze generikoa egiten du.

1. amaierako xedapenak Eskola Irakaskuntza eta Lanbide Irakaskuntzako Zuzendari Nagusiari baimena ematen dio FA garatzeko.

2. amaierako xedapenak FA Ikuskaritza Zerbitzura eta NAOra bidaltzeko agindua ematen du.

2. amaierako xedapenak FA indarrean sartu den eguna adierazten du.

3. Iradokizunak eta oharrak

Aztertutako FAk 265/1999 Foru Dekretuaren garapen zehatza egiten du eta balorazio positiboa merezi du.

Adierazitako lekuan honako ohar hauek barne hartu beharko lirateke:

1ª) 31. orrian, 2. eta 3. lerroen artean, honako testu hau jarri: "Hezkuntza Ikuskarien taldean sartzeko curriculum-arlo guztiak, bakoitza dagokion lehiaketaren bidez."

2ª) 53. orrian honako testua "NFEko hezkuntzaren adierazleen sistema" kendu eta hau jarri "Nafarroako hezkuntzaren adierazleen sistema".

3ª) 54. orrian honako testua kendu: "Hezkuntza Administrazioarekin Informazioa eta Lankidetzarako azken bi prozesuak:

Araudia aztertzea eta irizpideak homogeneizatzea, ondoren aplikatzeko.

Sailak sortutako epaimahaietan eta lan-taldeetan parte-hartzea".

Ebazpen hau bidaltzen zaizu zuk aztertzeko.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an

OI,

Lehendakaria, Javier Marcotegui Ros Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA
ETA KULTURA SAILBURUA